




ZARAUZKO UDALA



2015H7050029-003-001.doc

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
Roke Akizu. Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendari nagusia.
Koldo Lizarralde. Nekazaritzako eta Landa garapeneko zuzendari nagusia.
Peio Gascón Lurralde Antolaketako Zuzendari nagusia

Gipuzkoa plaza z/g 20004 DONOSTIA

Idatzi honen bidez zera adierazi nahi dizuegu:


Aiako udal herrian Amezti baserria berreraikitzen ari dira. Hori dela eta, hainbat herritar etorri zaizkigu informazio eskean. Arkamurka Natur Taldeak ere eskaera egin dio Zarauzko udalari, Biotopoko natur ondarea eta haren balio paisajistikoa babestu ditzan.

Egoera horretan Zarauzko Udalak eskatu dio Aiako udaletxeari, eraikin horri buruzko informazioa bidali diezagula.

Garrantzitsua zaigu jakitea lurzoruaren legeak eskatzen dituen betekizunak jarraitu diren (alegia, baserri zaharrak legeak agintzen dituen ezaugarriak betetzen zituen), eta baserri berriaren eraikinak zaharraren konposizio bolumetrikoa (ez soilik bolumena) mantentzen duen eta saiakera egin ote duten landa lurreko eraikin tipologiari eusteko, legeak adierazten duen eran.

Baina Aiako udalari informazioa eskatzeaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu udalaz gaineko erakundeek ere horrelako gaiak aztertzea. Horregatik bai Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendariari (paisaian izan dezakeen eraginagatik bereziki), bai Lurralde Antolaketako Zuzendariari (lurzoruaren legea betetzea bermatu behar dugun heinean) eta baita Nekazaritzako eta Landa garapeneko zuzendariari (landa garapena kontrolatzeko beharra dela eta) gaiaren berri eman nahi dizuegu, egoki iruditzen zaizkizuen neurriak har ditzazuen.

Zarautzen, 2015eko maiatzaren 13an.


Iñaki Eizagirre Eizagirre
Hirigintzako zinegotzia

